

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

125/2022 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa. Onartzea bete direla Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren martxoaren 21eko 36/2022 Foru Aginduak ezarritako baldintzak, zeinaren bidez behin betiko onetsi baitzen, zenbait baldintzarekin, Lezako udalerriko plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espediente, 5 poligonoko 652 lurzatiei buruzkoa

Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren otsailaren 21eko 36/2022 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onetsi zen, zenbait baldintzarekin, Lezako udalerriko plangintzako arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren espediente, 5 poligonoko 652 lurzatiari buruzkoa.

36/2022 Foru Agindu horretan, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zen ezen, haiek zuzendu ondoren, espediente foru aldundiari igorri beharko zitzaioela, jendaurrean jartzeko izapidea berriro egin gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

2022ko maiatzaren 13an, espedientearen testu bateratua sartu zen Aldundi honen Erregistroan.

Aurkeztutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da bete direla foru agindu horretan ezarritako baldintzak.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat jotzea Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren otsailaren 21eko 36/2022 Foru Aginduak ezarritako baldintzak, zeinaren bidez behin betiko onetsi baitzen, zenbait baldintzarekin, Lezako udalerriko plangintzako arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren espediente, hain zuzen ere, 5 poligonoko 652 lurzatiari buruzkoa.

Bigarrena. Aldaketa puntuala Arabako Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2022ko ekainaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO